




LAZKAOKO UDALA




OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

LAZKAOKO ETA OLABERRIKO UDALEN ARTEKO ELKARLAN HITZARMENA, LAZKAOKO INTXAUSTI, BORDABERRI, ERTZILTZO ETA ARRAMENDI ERAIKINEI EDATEKO URA HORNITZEKO AZPIEGITURA SAREEN MANTENIMENDURAKO.-

Olaberria eta Lazkaoko udalerrien administrazio mugaketak eta muga inguruko konfigurazio topografikoak, Lazkaoko udalerriari dagozkion zenbait eraikini, edateko ura, Olaberriako saretik hornitzea eragin dute.


Era honetan, Lazkaoko udalerrian kokatutako Arramendi, Ertziltxo, Bordaberri eta Intxausti baserriek Olaberriako saretik jasotzen dute ura.

Eraikinetara doazen adarkatzeak abiatzen diren puntuetatik distantziak aldakorrek direnez, eta hauetako batzuk nahiko urrun daudenez, hitzarmen hau izenpetzea proposatzen da, sarearen mantenimenduan Udal bakoitzak dituen erantzunkizunak eta alde bakoitzaren betebeharrak ekonomikoak zehazteko.





**LAZKAOKO UDALA**



**OLABERRIKO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

### TRAZAKETEN EZAUGARRIAK

Baserri bakoitzean sor daitezkeen mantenimendu karga ezberdinak neurtzeko, hornikuntza trazaketa tramoetan zatitu da, ondorengo mugapenekin:


- A. Tramuaren hasiera puntúa. - Mozketa giltzaren kokapen puntúa eta eraikin bakoitzera banakako kontagailua.
- B. Tramuaren bigarren puntua. - Banakako sarearen eta udalerriko mugaren arteko elkargune puntua.
- C. Tramuaren hirugarren puntua. - Baserrirako akometida puntua.

Tramu bakoitzeko distantzia osoak eta partzialak ondorengoak dirá:


	A-B TRAMUA	B-C TRAMUA	LUZERA OSOA
ITXAUSTI BASERRIA	207,75 m.	39,23 m.	246,98 m.
BORDABERRI ARTEGIA	3,93 m.	182,56 m.	186,49 m.
ERTZILTZO BASERRIA	12,03 m.	30,27 m.	43,30 m.
ARRAMENDI BASERRIA	133,39 m.	179,54 m.	312,93 m.

Beraz, edateko uraren hornikuntzarako sare partikularrek 789,70 metroko luzera dute, kontagailu partikularretatik aipatutako lau eraikihetara arte. Hauetatik 357,10 metro Olaberriko udalerriri dagozkion lursailetatik igarotzen dirá eta 431,60 metro Lazkaoko lurretatik.





**LAZKAOKO UDALA**



**OLABERRIKO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA


### ESTIPULAZIOAK ETA JARDUKETA ARAUAK.-

Aurreko trazaduren banaketa ikusita, hitzarmen honen bidez ondorengo jarduketa arauak eta sarearen mantenimendu kostuen esleipena ezartzen dirá.

- 4 eraikinetako kontagailuen irakurketa Olaberriako Udaleko langileek egingo dute eta hornitutako eraikinetako jabeei zuzenean fakturako zaie, Udal horretan indarrean dauden tarifen arabera.
- Hitzarmen honen xedea den azpiegiturak, kontagailua mozketa giltzarekin eta egungo eta etorkizuneko ur hornidura eroanbideak barneratuko ditu.
- Azpiegituretan burutu behar diren konponketak eta mantenimendu jarduketak, bai Olaberriko udalerrian baita ere Lazkaoko udalerrian, Olaberriako Udaleko langileek egingo dituzte, kosteak, Lazkaoko Udalak "administrazioz" egindako lanak bezala ordainduko dituelarik. Bestela, lanak kontratatutako enpresak burutuko ditu, kasu horretan kostu horiek Lazkaoko Udalak zuzenean ordainduko dituelarik.
- Olaberriko Udalak mantenimendu lanak eta azpiegituren ordezkatzeko lanak goian aipatutako baldintzetan egiteko konpromezua hartzen du, beharrezko kontsideratzen duen bezain azkar, aurrez Lazkaoko Udalari jakinaraziz, ur-jarioak ekiditeko eta eragindako eraikinei ura normaltasunez hornitzeko.
- Bestalde, adarretakoren batean ur-ihesa egon dela eta lau erabiltzaileretako baten kontsumo-fakturan eragina izan duela egiaztatzen bada, azken 2 lauhilabeteko kontsumoen media egingo da eta horren arabera fakturatuko zaio. Mediaren eta benetako kontsumoaren arteko diferentzia Lazkaoko Udalari fakturatuko zaio kostu-prezioan.

Lazkaon eta Olaberrian, 2008ko martxoaren 5ean.

Patxi Albisu Estensoro  
Lazkaoko Alkatea



Txomin Mendoza Perez  
Olaberriko Alkatea

